




Teknologiak eta gaitasun digitalak hizkuntzen irakaskuntzan: elkarrekin eta elkarrengandik ikasteko gakoak



Uzt. 12 - Uzt. 14 2021

Kod. H16-21

Mod.:

Online zuzenean Aurrez aurrekoa

Edizioa

2021

Jarduera mota

Uda Ikastaroa

Data

Uzt. 12 - Uzt. 14 2021

Kokalekua

Miramar Jauregia

Hizkuntzak

Euskara

Balio akademikoa

30 ordu

Antolakuntza Batzordea



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA SAILA
DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN



Azalpena

Ikastaroa aurrez aurre ospatuko da eta online zuzenean parte hartzeko aukera ere egongo da ZOOM bidez. Matrikula prozesuan nola parte hartuko duzun aukeratu: aurrez-aurre edota online zuzenean.

Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Saileko baliozkotzea dauka (2168170021) unibertsitateaz kanpoko irakasleentzat. Baita ere Nafarroako Gobernuaren Hezkuntza Sailak irakasleen etengabeko prestakuntza gisa ere baliozkotzea eskatu da.

Bizimodua eraldatu egin digute teknologiek; aldaketa handia eta etengabekoa da. Egoera horren aurrean, bizitza osoan ikasteko jarrera eta konpromisoa, etengabeko ikaskuntza alegia, izan daiteke erantzuteko bide egokia. Badago 2020an ustekabean agertu zenetik gure bizitzetan dugun beste funtsezko baldintzatzaile bat: COVID 19a. Pandemiak hainbat esparrutan dauden alderdi ahulak eta sendoak, mehatxuak eta aukerak azalarazi ditu; hezkuntzaren eremua oro har, eta horren baitako helduen euskalduntzea beraz, ez da salbuespena izan.

Halaber, izugarri zabaldu dute teknologiek antzeko interesak dituzten pertsonak aurkitzeko modua. Hau honela, besteekin eta besteengandik betidanik eman den gertaera bada ere, biderkatu egin dira bide horiek teknologien eta Interneten eraginez. Arriskuak eta mugak egon arren, egun komunitateek garapen profesionalerako, prestakuntzarako eta geure burua bizitza osoan janzteko aukera eskaintzen dute.

Teknologiak ikuspegi kritikotik aintzat hartuz, irakasle eta ikasleen gaitasun digitalak areagotuz, elkarrekin/elkarrengandik ikasteaz hausnartzeko zein hizkuntzen ikas- eta irakas-prozesuetan erabakiak hartzeko tartea izango dugu ikastaro honetan.

Helburuak

Partaideen gaitasun digitalak garatzea eta hobetzea.

Teknologien ahalmen didaktikoa eguneroko jardunean baliatzeko ikuspegia indartzea.

Ingurune digitaletan edota une jakin batean eskura egon daitezkeen aplikazioekin moldatzeko joera sendotzea.

Irakasleek garapen profesionalari begira elkarrekin eta elkarrengandik ikasteko aukerei buruzko hausnarketa sustatzea.

Gaitasun zein teknologia digitalek hizkuntzen ikas-irakaskuntzan duten tokiaz hausnartzea.

Ikastaroaren laguntzaile espezifikoak



Programa

2021-07-12

09:00 - 09:15	Inaugurazio instituzionala Jokin Azkue Arrastoa Eusko Jaurlaritza/Gobierno Vasco - HABEko zuzendari nagusia Itziar Alkorta Idiakez UPV/EHU-ko Uda Ikastaroak Fundazioa / Fundación Cursos de Verano de la UPV/EHU - Zuzendari Akademikoa / Directora Académica
09:15 - 09:30	Jardueraren zuzendaritzaren aurkezpena Iñaki Murua Anzola HABE
09:30 - 10:30	“Ikastaroaren dinamikaren oinarriak” Amaia Arroyo Sagasta Mondragon Unibertsitatea. HUHEZI Fakultatea Iñaki Murua Anzola HABE Lorea Fernández Olaskoaga UPV-EHU
10:30 - 11:30	“Egungo testuinguruari buruzko zertzelada batzuk” Lorea Fernández Olaskoaga UPV-EHU
11:30 - 12:00	Atsedena
12:00 - 13:00	“Gaitasun digitalak eta hizkuntzen ikas-irakaskuntza” Iñaki Murua Anzola HABE
13:00 - 14:15	“Nire gaitasun digitalak: etengabe ikasteko oinarriak” Amaia Arroyo Sagasta Mondragon Unibertsitatea. HUHEZI Fakultatea
14:15 - 14:30	Sintesia

2021-07-13

09:00 - 10:00	“Komunitateak erakitzea: aukerak eta mugak” Iñaki Murua Anzola HABE
10:00 - 11:30	“Sareak ehuntzeko erabili ahal diren bitartekoak” Amaia Arroyo Sagasta Mondragon Unibertsitatea. HUHEZI Fakultatea
11:30 - 12:00	Atsedena
12:00 - 13:00	“Bitartekoen AMIA analisiak eraikitzea” Amaia Arroyo Sagasta Mondragon Unibertsitatea. HUHEZI Fakultatea Iñaki Murua Anzola HABE Lorea Fernández Olaskoaga UPV-EHU
13:00 - 14:00	“Analisien berri ematea”

14:00 - 14:30 Sintesia

2021-07-14

09:00 - 09:15 Sarrera: aurreko egunen laburpena eta hirugarren egunerako egitasmoa

09:15 - 09:45 "Ikastaroko lan -proposamena gauzatzeko jarraibideak"

Amaia Arroyo Sagasta Mondragon Unibertsitatea. HUHEZI Fakultatea
Iñaki Murua Anzola HABE
Lorea Fernández Olaskoaga UPV-EHU

09:45 - 12:00 "Hizkuntzen eskolarako / lankidetzarako proposamen baten garapena teknologia baliatuta"

Amaia Arroyo Sagasta Mondragon Unibertsitatea. HUHEZI Fakultatea
Iñaki Murua Anzola HABE
Lorea Fernández Olaskoaga UPV-EHU

12:00 - 12:30 Atsedena

12:30 - 14:00 "Landutako proposamenen aurkezpena eta ebaluazioa"

Amaia Arroyo Sagasta Mondragon Unibertsitatea. HUHEZI Fakultatea
Iñaki Murua Anzola HABE
Lorea Fernández Olaskoaga UPV-EHU

14:00 - 14:30 Itxiera

Lorea Fernández Olaskoaga UPV-EHU
Amaia Arroyo Sagasta Mondragon Unibertsitatea. HUHEZI Fakultatea
Iñaki Murua Anzola HABE

Zuzendaritza



Iñaki Murua Anzola

HABE, Teknikaria

Hezkuntza-Zientzietan lizentziatua eta doktorea (UNED). Helduen prestakuntzaren alorrean aritu da ibilbide profesional osoan, euskararen ikas-irakaskuntzan batez ere. Basauriko Udal Euskaltegian 10 urtez irakasle (eta hasierako urteetan zuzendari) izan ondoren, duela 26 urte hasi zen HABEn teknikari gisa, harrez geroztik zeregin desberdinetan jardun duelarik. Azkenaldi honetan, Curriculumaren Garapena eta Prestakuntza atalean; besteak beste, erakunde horrek plazaratzen dituen argitalpen teknikoaren koordinatzaile-editore (eHIZPIDE, Itzulpen Saila) eta Irakasbil webguneko editoreetako bat. Teknologien eta irakasleen prestakuntzaren inguruan ardaztu dira bere ikerketa eta argitalpenak; ikas-ziberkomunitateak eta partaidetza pasiboa dira gai nagusiak eremu horietan.

Irakasleak



Amaia Arroyo Sagasta

HUHEZI - Mondragon Unibertsitatea, Irakaslea eta ikerlaria

Hezkuntza Bereziko Magisteritzan diplomatua (2004), IKTak formazioan aplikatuta masterduna (2006), Komunikazio eta Hezkuntza Sarean masterduna (2012), eta Komunikazioan eta Hezkuntzan doktorea (2017): Konpetentzia Digitala, Norbere Ikas-Alorra (NIA) eta Erakundearen Ikas-Alorra (EIA) dira bere ikerlerroak. Hainbat zereginetan ibili izan da: irakasle, aholkulari, editore, ikasmaterial-egile... baina teknologia digitalaren ikuspegi pedagogikoa da bere interesgunea, eta zeregin guztietan ardatz horri eusten saiatzen da. Gaur egun, Mondragon Unibertsitateko HUHEZI Fakultateko irakaslea eta ikerlaria da, KoLaborategiko kidea. Gainera, UEUk eta EHUK eskaintzen duten HEZikt graduondokoa irakaslea, koordinatzailea eta Batzorde Akademikoko kidea da.



Lorea Fernández Olaskoaga

Doctora por la UPV-EHU (2007). Licenciada en Pedagogía y Diplomada en Educación Primaria (UPV-EHU). Profesora de la Facultad de Educación, Filosofía y Antropología que imparte las asignaturas de Didáctica General y Nuevas Tecnologías en el grado de Educación Primaria. Es profesora del Máster de Educación Digital de la Universidad de Extremadura desde el curso 2014-2015 impartiendo la asignatura de Perspectivas de Investigación en tecnología Educativa. Forma parte del grupo de investigación Elkarrikertuz (IT887-16). Es presidenta de la Red Universitaria de Tecnología Educativa desde junio de 2018 y miembro de la red REUNI+D. sus líneas de investigación se centran en el aprendizaje docente y en el intercambio de experiencias para la reflexión educativa y construcción del conocimiento entre profesorado y alumnado a través de procesos narrativos y los medios digitales desde una perspectiva postcualitativa.

Matrikula prezioak

AURREZ AURRE	2021-03-23 ARTE	2021-07-12 ARTE
Prest_gara H16-21	0 EUR	-
OROKORRA	-	105,00 EUR
MATRIKULA MURRIZTUA OROKORRA	-	89,00 EUR
MATRIKULA EXENTZIOA	-	74,00 EUR
IRAKASTEKO IKASTEN MURRIZPENA	-	89,00 EUR
Euskaltegi edo autoikaskuntzarako zentro homologatuko kide	-	89,00 EUR
ELKAR txarteldunak	-	89,00 EUR

ONLINE ZUZENEAN	2021-03-23 ARTE	2021-07-12 ARTE
OROKORRA	-	105,00 EUR
MATRIKULA MURRIZTUA OROKORRA	-	89,00 EUR
MATRIKULA EXENTZIOA	-	74,00 EUR
IRAKASTEKO IKASTEN MURRIZPENA	-	89,00 EUR
Euskaltegi edo autoikaskuntzarako zentro homologatuko kide	-	89,00 EUR
ELKAR txarteldunak	-	89,00 EUR

Kokalekua

Miramar Jauregia

Mirakontxa pasealekua 48, 20007 Donostia

Gipuzkoa